

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

449

2370/2023 EBAZPENA, abenduaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Ahoko eta Aurpegi Masailletako Kirurgiako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako, zeinetan Ahoko eta Aurpegi Masailletako Kirurgiako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoria sartzen baita (2021eko azaroaren 8ko EHAA 221. zk.), eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera arautuko da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 23ko 325/2023 Ebazpenaren bidez (apirilaren 14ko EHAA 71. zk.), zeina aldatu egin baitzen apirilaren 20ko 387/2023 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 5eko EHAA, 84. zk.) eta abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez (irailaren 7ko EHAA, 171. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza argitara eman zen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Ahoko eta Aurpegi Masailletako Kirurgiako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoria/lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 29ko 1577/2023 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Ahoko eta Aurpegi Masailletako Kirurgiako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiarri bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten martxoaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren I. eranskineko Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldearen kategorien / lanpostu funtzionalen zerrendan dagoen Ahoko eta Aurpegi Masailletako Kirurgiako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen lege-diak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

2024ko urtarrilaren 29a, astelehena

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez, baztertutako langileen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Ahoko eta Aurpegi Masailetakoa Kirurgiako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko ziklorako. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 23ko 325/2023 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8 oinarrian xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko urtarrilaren 29a, astelehena

II. ERANSKINA

325/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. ESP. AHO ETA AURPEGI-MASAILAETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. AHO ETA AURPEGI-MASAILAETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA

NAN	Izen-abizenak	Baztertzeko arrazoia
***6236**	Andicoechea Agorria, Borja	Zikloari uko egin dio
***5382**	Brunso Casellas, Joan	Lehiaketan atzera egin du